



Jalgin Aurka

Lasarte-Oriako taldeak lagun asko bildu zituen ostiral gaueko kontzertuan

Jalgin Ttakunek antolatzen dituen kontzertuetan herriko Aurka taldearen txanda heldu zen aurreko ostiral gauean eta taldeak zein ikusleek ederki gozatu zuten. Lasarte-Oriako taldea izanda herritar ugari bildu zen Jalgin eta taldeak ere duen onena eskaini zuen herritarren aurrean. Kontzertu bikaina beraz osteguneko.



Mailu Arruti bikain Bakarrizketa Sariko finalean

II. Euskarazko Bakarrizketen Lehiaketako finalean izan zen Mailu Arruti ostiralean Villabonako Antzokian eta saririk jaso ez bazuen lan bikaina egin zuen. Finalera iritsi ziren bost emakumeek kontaketa bizi eta umoretsuak egin zituzten eta azkenean Azpeitiko Erika Olaizola nagusitu zen. Mailu Arrutik ostegunean 20:30etan Doka antzokian eskainiko du berriz bere lana. /5. ORRIALDEA

Argi eta Iñaki oroitu zituzten ostiralean

Ostiralean Udaletxe aurrean euskal preso-en senide eta lagunek egin zuten elkarretaratzean, duela zortzi urte otsailaren 28an Albaceten istripuz hil ziren Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi gogoratu zituzten. Juan-kar Balerdi presoaren amak eta anaiak, Almeriako espetxera bisitatzeraz zihoazela izan zuten auto istripua eta ostiralean biak oroitzeaz gain, espainiar gobernuak darabilen sakabanaketa politika salatu zuten, "Egin dezagun bidea, Euskal Presoak Etxera" pankartarekin.



Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi gogoratu zituzten ostiral iluntzean Udaletxe aurrean egin zuten elkarretaratzean.

KIROLA/2

Santos Uribe eta Irati Larrañaga atletak txapeldun

GIZARTEA/3

III. Udaltop topaketa apirilaren 7 eta 8an, kultur etxean

AISIA/4

Lasarte-Oriaren mugak eta historia martxoaren 13ko Oinatz-en irteeran



BATU GAITEZEN

LASARTE-ORIAK AURRERA EGITEKO

Estibaliz Alkorta

Santos Uribe eta LOKEko Irati Larrañaga Euskadiko txapeldun

■ LOKEkoek hainbat domina eskuratu dituzte ■ Pili Bodegas garaile San Hilario krossean

Azken asteburuotan lanpetuta ibili dira LOKEko atletismo sailko gazteak.

Otsailaren 12 eta 13an, Euskadiko beterano eta senior mailako txapelketa izan zuten eta otsailaren 19 eta 20an, junior, jubenil eta kadeteen mailako lehiaketa.

LOKEko atletez gain, *Real Sociedad* taldeko Iñigo Sevillano-k parte hartu zuen senior mailako 60 metro hesiak proban eta *Zumeatarrak* Santos Uribe beteranoak martxan.

Senior maila

Senior mailako Euskadiko txapelketa fin ibili ziren LOKEko eta herriko atletak eta hiru domina lortu zituzten.

Irati Larrañaga gazteak urrezkoa eskuratu zuen jauzi hirukoitzeko proban eta bere

marka hobetu zuen.

Iñigo Sevillano 60 metro hesi proban txapeldun ordea izan zen. Aurreko zerbaki batean eman genuen horren berri.

Era berean, Gaizka Ormazabalak podiumeko hirugarren postua lortu zuen 400 metrotako proban. Egindako markarekin, Estatuko junior txapelketa parte hartzeke behar den gutxieneko denbora egin zuen.

Beteranoak

Bestalde, txapelketako martxa probak Gasteizen egin ziren. Bertan, Santos Uribe atleta lasarteoriatarak 75 urte baino gehiagoko 5 kmko martxa proban parte hartu zuen eta xirimiriari eta hotzari aurre eginez, urrezko domina ekarri zuen herrira.



Santos Uribe beteranoak berriro ere martxan Euskadiko txapeldun izatea lortu zuen.

Kadete eta juniorrak

Lehenengo asteburuan ere, Euskadiko kadete eta junior txapelketa lan ona egin zuten LOKEko gazteak. Izan ere, Oskar Goikoetxeren neska

mutilek lau domina eskuratu zituzten.

Irati Larrañagak junior mailako luzera eta jauzi hirukoitzeko urrezko dominak eskuratu zituen.

Honen ondorioz, senior eta junior mailako Euskadiko txapeldun dugu.

Era berean, Gaizka Ormazabal hirugarren izan zen juniorretako 200 metrotako proban.

Eta Ane Galardi kadeteak ere brontzeko postua eskuratu zuen luzera jauzian.

Proba honetaz gain, Ane Galardik 60 metrotako egin zuen. Baina honetan ez zuen zorterik izan eta 5. postuan amaitu zuen.

San Hilario Krosa

Bestalde, lehenengo igandean, otsailaren 20an, San Hilario krosa egin zen, Donostiako Miramon teknologia parkean.

400 bat partehartzaile izan ziren irteeran eta emakumeetan lehena, herrian bizirik den Pili Bodegas izan zen. •

Gipuzkoako finalean egoteko aukerak

Gimnastikako neskek lehenengo asteburuan hasi ziren lehiatzen.

Eskolarteko kadete, jubenil eta amateur txapelketako lehenengo fasea izan zen eta LOKEko entrenatzaileek azaldu digutenez, aste beteko atzerapenarekin hasi da denboraldia, txapelketako lehenengo kokalekuan arazoak egon zirela eta.

Finalerako aukerak

Lan ona egin zuten eta Jubenil b mailako Garazi Gomez eta Miren Aizpirik Gipuzkoako finalerako sailkapena lortu dezakete.

Jardunaldi honetan biek uztairerik egin zuten lan. Garazik bigarren postua eskuratu zuen eta Mirenek bosgarrena.



Gimnastikako neskek gogor egin dute lan eta Gipuzkoako finala saria izan daiteke.

Txapelketa, Aizpea Arroyo kadeteak ere parte hartu zuen eta sokarekin egindako lanarekin hamargarren postua eskuratu zuen.

Bestalde, kadete b mailako

taldeak ez zuen egun ona izan borrekin. Entrenatzaileek azaldu digutenez, "iaz Udaberri txapelketa bigarren izateagatik igo behar izan dira maila honetara eta egokitu behar dira". •

Squash txapelketarako izena emateko epea zabalik da

Lasarte-Oriako Kirolen Udala Zerbitzuak hogeita hirugarren Squash txapelketa soziala antolatu du.

Kirol Zerbitzuak jakin arazi duenez, txapelketa 2011ko martxoaren 21ean hasi eta ekaina arte garatuko da kiroldegian.

Baldintzak eta izena ematea

Partehartzaileek gutxienez 14 urte izan behar dute.

Txapelketa parte hartzeke asmoa dutenek martxoaren 11 arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko.

Inskripzioaren prezioa Buruntzaldeko bazkideentzat 10 eurokoa da. •



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitateko gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Udaltop euskara ez dakitenak gai hartuta

III Udaltop, Euskara Zerbitzuen Topaketa, Apirilaren 7 eta 8an, burutuko da kultur etxean

Lasarte-Oriako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Eudelek eta Kutxak UdalTop Udaletako euskara Zerbitzuen III. Topaketa aurkeztu zuten asteazkenean, Koldo Mitxelena kulturgunean.

Patxi Martinez de Marigorta, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza normalizatzeko zuzendaria, Estitxu Alkorta Foru Aldundiko euskara zuzendaria, Iñaki Arruti Lasarte-Oriako Udaleko euskara zerbitzuko arduraduna, Jon Azkue Eudeleko ordezkaria eta Mikel Irizar kutxako ordezkaria egon ziren bertan.

Apirilaren 7 eta 8an burutuko da Topaketa berriro ere Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Aurtengoa hirugarrena izango da.

Euskara ez dakitenak

Aurten landuko den gaia "Zer da euskara ez dakitenentzat?" da eta pertsona horiei euskara hurbiltzeko udalek zer egin dezaketean eta nola aztertuko dute.

Martinez de Marigortak normalizazioan euskaraz ez dakitenek duten garrantzia azpimarratu zuen, "asko direlako euskaraz jakin gabe euskararen normalizazioa eta euskararen aldeko kanpainak bultzatzen dituztenak".

Horretaz gain, elebitasun hartzaileak ere aipatu zituen, "euskaraz hitz egiten, baina badakite ulertzeko adina; gaztelaniaz egiten diren elkarrizketa asko, beraz, bi hizkuntzatan izan litezke nork bere aukerako hizkuntzan mintzatuta. Hori Euskal Herrian ez da maiz gertatzen, bai ordea, Katalunian".

Iñaki Arrutik azaldu zuenez, aurtengo gaia interes bizikoa da, "Lasarte-Oria bertatik hasita, beti izan da jomuga bat nola erakarri erdalduan euskarara. Askotan aritu gara ahalegin horretan eta aurrerantzean ere jarraituko dugu".

Jokin Azkue Eudeleko ordezkariak euskararen normalizazioan eta berreskurapean euskaraz ez dakitenak euskararen unibertsoa erakartzea giltzarria dela azpimarratu zuen.

Katalunia eta Valentzia

Aurkezpenean, egitaraua aurkeztu eta hizlarien berri eman zuten. Azpimarratzekoa da aurten Kataluniako eta Valentziako hizlariak egongo direla, esate baterako, Josep-Anton Fernandez Montolik "El catalán también es mío" gidaren berri emango du edo Mercè Solé i Sanosak "Les bones pràctiques, un recurs per als serveis lingüístics" izenburua duen hitzaldia eskainiko du.



Arg.: Udaltop

Udaltop Topaketak antolatzen dituzten erakundeetako ordezkariak Koldo Mitxelena kulturunean egin zen aurkezpenean.

Bestalde, Estibaliz Amorrortu eta Ane Ortega "Euskarara hurbiltzeko jarrera mesedegarri eta oztopatzaileak" ikerketari buruz mintzatu dira.

Eta "Hizkuntza politika, euskaraz ez dakiteni begira" izeneko mahai-inguruan Xabier Azanza Nafarroako gobernuko ordezkariak, Bernadette Soule Euskararen Erakunde publikoko ordezkariak eta Lurdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako saileko ordezkariak parte hartuko dute.

Honetaz gain, Topaketetan emango diren ponentziak eta

hizlarien curriculumak Udaltopeko gunean ikusgai daudela jakin arazi zuten.

Berrikuntzak

Hirugarren edizio honetako berrikuntza nabarmenak batetik azoka eta bestetik erakusketak izango dira. Azoka, enpresa, elkarte eta erakundeek haien zerbitzuak saltzeko jarriko dute. Erakusketan, hainbat udali bere esperientziaren berri emateko aukera emango zaie.

Honetaz gain, erakunde antolatzaile guztiek eskertu zuten garai zail hauetan

Kutxak proiektu hau babestu izana eta, zehazki, topaketen barruan azoka eta erakusketak egiteko aukera eman izana.

Izena ematea

Topaketetan parte hartzeko interesa duten euskara teknikariek martxoaren 24a arte dute matrikula egiteko epea zabalik. Izena ematea internet bidez egingo da, www.udal-top.com gunean.

Prensaurrekoan jakin arazi zuten, prezioa iaizko berdina izango da, 80 eurokoa, bi egunetako bazkaria barne dagoelarik. •

Adineko pertsonak zaintzen dituzten familiek laguntza taldea osatu dute Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako Udalak *Sendian* programako familien laguntzarako taldea osatu du.

Foru Aldundiak bultzatzen duen programa da hau eta Lasarte-Oriako Udalak, Gizarte Zerbitzuetako, Enplegu eta Kooperazioko sailaren bidez, beharrezko gestioak egin ditu udalerrian bertan talde bat osatzeko.

Programaren helburua adindu ezinduek zaintzen dituzten familiak laguntzea da.

Era honetara, zaintzaileek izan ohi dituzten desoreka personal eta familiarrei konponbidea emateaz gain, adineko pertsonen eskaintzen zaien arreta hobetzen duten laguntzarako baliabideak

garatzen lagunduko die programak.

Zaintzaileak zaindu

"Zaintzen duenari zaintzearen garrantzia," horrela laburbildu du Jesus Zaballo alkatetik talde hauen filosofia.

Arazoei aurre egiteko eta konpontzeko eta errudun ez sentitzeko prozesuetan aditua den pertsona batek gidatzen ditu.

Alkateak azaldu duen moduan, "agerikoa da arazo berdina duten pertsonen arteko laguntzaren eraginkortasuna, eta oso garrantzitsua da bakoitzak bere errekurtsoak aurkitzea, hori guztia adierazteko, komunikatzeko eta parte hartzeko aukera ematen dien inguru batean".

Bilerak eta informazioa

Lasarte-Oriako taldea adindu ezinduek zaintzen dituzten 13 pertsonen osatua dago eta joan den otsailaren 15ean hasi zen lanean.

Honela, Udalak jakitera eman duenez, laguntza taldearen bilera hamabostero egingo dira Atsobakar zaharren egoitzan, hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren asteartean 15:30etik 17:00etara.

Informazio gehiago nahi izanez gero, interesa duten herritarrek Villa Mirentxun, Donostia Etorbidea 3 dagoen Udaleko Gizarte Zerbitzuetako, Enplegu eta Kooperazioko sailera jo dezakete, astelehenean ostiralera 9:00etatik 13:00etara. •

SALAKETA

Etxebizitzaren zozketari kritika Plataformak

Lasarte-Oria Herriar Plataformak gogor salatu du aurreko osteguneko etxebizitzaren zozketa egiteko modua. Zozketan erabili zen zerrenda 2010eko uztailaren 6an itxitakoa izan zela eta inork gehiagok parte hartzeko aukerarik izan ez duela salatu dute plataformakoek ezker abertzalekoek aurreko astean egin zuten bezala. Gainera izena emateko epe berri bat ireki dadila eskatu du. •

ELKARTASUNA

Azoka txiki solidarioa

Santa Teresa ikastetxeak martxoaren 3 eta 4an, Azoka Txiki Solidarioa antolatu duela jakin arazi die Lasarte-Oriako ikasle eta gurasoei. Azoka goizean 9:30etatik 13:00etara eta arratsaldean, 15:15etatik 18:00etara irekia egongo da ikastetxean.

Azokarekin lortutako dirua, hirugarren munduan proiektuak gauzatzen dituzten gobernuz kanpoko bi erakundeetara bideratuko da, Manos Unidas eta Fundeo. •

LANAK

Michelin enpresa ondoko frontoia itxia

Michelin enpresaren eraikin zaharra botatzeko lanak direla eta, Michelingo frontoi irekia, itxita egongo da lau astetan. Geltoki kaleko 22. zenbakian dagoen frontoia ezingo da beraz gaurtik aurrera erabili eta Lasarte-Oriako alkateak barkamena eskatu du segurtasun neurri honek sortu ditzakeen eragozpenengatik. •

Lasarte-Oria, mugarriz mugarri

Martxoaren 13an, herriko mugak ezagutzeko parada eskaini nahi dute Oinatz taldekoek

Otsailaren 15ean, Lasarte-Oria herri bezala eratu zenetik 25. urteurrenarekin bat eginez, Oinatz taldeak gure herriko bazterrak ezagutzeko aukera eskaini nahi die herritarrei. Horretarako, martxoaren 13an, igandean, mugarriz-mugarri doan ibilbidea osatu dute Lasarte-Oriako mugak hurbiletik ezagutzeko. Lasarte-Oriak zilarrezko ezteiak bete dituen urte honetan herriaren historia ere ezagutu dezagun martxa polita antolatu dute.

Goizeko 09:00etan emango zaio hasiera Lasarte-Oriaren mugak ezagutzeko aitzakiaz Oinatz taldeak antolatu duen mendi martxari. Martxoaren 13an jarri da hitzordua Jalgin. Goizeko irteera izango da, eguerdirako itzuliz, alegia, mugarriak errespetatuz Lasarte-Oriari bira eman eta gero.

Jalgin bildu eta lehenengo geldidunea Brigitarren komentura egingo dute. Oinatz Taldeak irteera guztietan egiten duen bezala, honetan ere parte hartzaileei erreferentzia historikoak eskainiko die bertan. Herriko mugak ezagutzeaz gain, herriaren beraren historiara hurbiltzea dute helburu Oinatzekoek.

Ondoren, ibai ertzetik Zumaburuko ibai ondoko parkera abiatuko dira eta bertan Hipodromoari buruzko datuak emango zaizkie hasteko eta ondoren Zumaburu auzo bihurtu aurretik bertan garai batean zegoen irlari buruzko argibideak eta informazioa.

Hiritik mendirantz

Txitxardin beltza aldera joango dira gero, hortik Oria bidera, Brunet fabrika zegoen tokira eta hortik Azkorterera. Hiru leku hauetan ere geldialdia egongo da inguruko eta tokia tokiko informazioa eskaintzeko.

Azkortetik Bidegurutzeta aldera jarraituko du ibilbideak. Bertan Plazaolako trenari buruzko azalpenak emango dituzte taldekoek eta Lasarte-Oriaren biztanle dentsitate datuak ere bai.

Honen ostean, hamaiketakorako atsedena hartuko dute. Hilero egiten duten ibilaldietan energiak berreskuratzeko denbora hartu ohi dute eta honetan ere bai. Hamaiketakoak bakoitzak eraman beharko du bere etxetik.

Herria inguratzen

Hamaiketakoaren ostean kanposantu aldera abiatu eta hortik Zabaletara igoko dira.

Ondoren Goiegitik barrena Atsokarrera jaitsiko dira. Bertan Michelin fabrika eta golf zelaiari buruzko datu historiko eta interesgarriak emango dira. Eta honekin ibilbideari amaiera emango zaio, eguerdi partean Jalgin amaituko da Oinatzetik herriaren mugak eta historia ezagutzeko prestatu duen irteera.

Egin dezagun historia

Aipatu bezala herriko mugak ezagutzeaz gain herriaren beraren datu historikoak eskainiko dira martxoaren 13rako Oinatzek prestatu duen irteeran.

Talde honek antolatzen dituen ibilbide guztietan lekuak fisikoki ezagutzeaz



1976 urteko argazki honetan gaur egungo Lasarte-Oriarekin alderaka ugariak ikus ditzakegu, gehienbat egungo auzo batzuen falta.

gain, bertako historia ere ezagutzea dute helburu nagusi. Gainera, taldekideak eurak dira beti datu historiko hauek gainerakoei kontatzen dizkietenak. Hala ere, argi utzi nahi dute norbaitek zerbait aportatu nahi izanez gero ongietorria izango dela. Zenbat eta informazio gehiago, irteera aberasgarriagoa izango da eta. Herritar guztiak gonbidatu ditu Oinatzek irteeran par hartu eta herriko historia ezagutzeko.

Gogoratu, martxoaren 13an, goizeko 09:00etan Jalgin emango zaiola hasiera bidai historiko honi. Datu interesgarri asko dago, ezagutu nahi badituzu, ez galdu Oinatzten proposamena. •



Egungo Lasarte-Oriaren itxura, eta marra morez herriko mugak azaltzen dira

NAGUSI BERRIAK
Ordutegi berria
Giro berria

Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak

...

WIFI GUNEA

Oria Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria



ERREKATXO
JATETXEA

KARTA
eta
EGUNEKO MENUA

www.txintxarri.info

Albisteak, agenda,
argazkiak, zorion-agurrak,
Txintxarri pdf-n...

Emakumeen bakarrizketak

- Mailu Arrutik ez zuen saririk lortu Amasa-Villabonako II Bakarrizketa Lehiaketako finalean
- Lasarte-Oriako antzezlea ostegunean 20:30etan Donostiako Doka aretoan arituko da berriro

Umorea eta emakumeak izan ziren ostiralean Villabonako antzokian jokatu zen II. Euskarazko Bakarrizketen Lehiaketako finalean protagonista. Bost finalistak emakumezkoak izan ziren, tartean zen Mailu Arruti lasarte-oriatarra, guztiek oso kontaketa umoretsuak egin zituzten eta azkenean Azeitiko Erika Olaizola nagusitu zen, hain juxtu, hizketa baino gorputz espresioa besteek baino gehiago landu zuenak. Joxe Mari Agirretzek, emakumeek egindako lana goraiapatuz zera esan zuen sari banaketan, "gizonezkoek mutikotan baloiari ostiko egiten diote, gero handitan munduari. Ea mundua nesken esku geratzen den!"

JON AL TUNA

Villabonako aretoa bete egin zen ostiral gauean euskarazko bakarrizketen lehiaketako finala ikusteko. 200 lagunetik gora parrez lehertu ziren bi ordutan finalean izan ziren bost emakumeen eta aurkezle lana egin zuen Alex Tello usurbildarraren ateraldiekin.

Bi kanporaketa egin ziren aurreko bi ostiralean, eta hiru mutilek parte hartu baldin bazuten ere, emakumezkoek bakarrizketan zuten finalerako txartela. Eta finalean ere aktore eta kontalari bikainak direla erakutsi zuten bost finalistek. Mailu Arruti saririk gabe geratu zen baina garai bateko etxekoandarearen kontuekin une ederrak pasarazi zien ikusleei.

Sarreran ikusleek piruleta bana jaso zuten operari eta hain juxtu piruleta horiek, edo jan zutenek piruleten makilak erabili zituzten ikuslearen saria emateko. Hau, iaz bezala Jone Gorostarzu bertako kontalariak jaso zuen. Bera izan lehengoa taula gainean, bikain aritu zen bere buruaz konplexurik gabe eta umorez, bere

altura txikiari buruz jardun baitzen solasean eta beretzat izan zen ikuslearen saria.

Txapela Azeitira

Bigarren aritu zen Erika Olaizola azeititiarrak eraman zuen lehen saria. Honek hitzari baino gorputzaren espresioari eman zion garrantzia, besteek baino gehiago bai behintzat eta hori baloratu zuten Belen Kruz, Joxan Zubero eta Josune Zabala epai mahaikideek: bere ideia ona, aktore lana eta hartutako arriskua. Pozez zorutzen atera zen aktorea Maialen Abaigar Villabonako Udaleko Euskara zinegotziaren eskutik saria jasotzera.

Erikaren ondoren, hirugarrena taularatu zen Erika Hualde Gasteizen bizi den bilbotarrak ere lan bikaina egin zuen eta bigarren saria eskuratu. Aurrekoak bezala mutilekin hartu emanak izan zituen hizpide baina denetarik kontatu zuten, kasu honeitan, inuzente xamarra zen eta maitemintzean azalean pinporta gorriak izaten zituen neskaren paperean. Epai mahaia bere aktore lana eta ikuslegoarekin lortu zuen lotura nabarmendu zuen.



Etexekoandreen gorabeherak kontatu zituen Mailu Arrutik Villabonako Antzokian.

Finalean parte hartu zuten azken biak geratu ziren saririk gabe. Etexekoandreen paperean aritu ziren hauek, Mailu Arruti herritarra garai bateko etxekoandreen kontu eta hauen garrantziari buruz aritu zen eta Eneritz Artetxe, aldiz, haurdun eta besotan ume bat zuela azaldu zen hain juxtu kontu horiei buruz aritzeko.

Biek lan bikaina egin zuten saririk gabe gelditu baziren ere.

Aipagarri da EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkar-teak oso ondo antolatu zuela ekitaldia. Aktore eta aurkezleekin batera, oholtza gainean Esne Beltza taldeko Xabier Solano (gitarra), Pello Gorrotxategi (teklak) eta DZ (DJ Zigor) izan ziren.

Mailu Arruti lanean berriro ikusteko aukera izango da datorren ostegunean bertan Donostiako Doka Kafe Antzokian gaueko 8:30etatik aurre-



Erika Olaizola izan zen irabazlea.



Nahia Hualde bigarrena.

ra, Euskarazko II Lehiaketa honetan parte hartu duten aktoreen bakarrizketetako batzuekin saio berezia antolatuko dute eta.

Euskalaketa

Bestalde, Euskalaketa, euskarazko bakarrizketa lehiaketa antolatu du AEK 17. Korrikarekin batera.

Apirilaren 7tik 17ra burutuko da korrika eta Korrika Kulturalak bultzatu du ekimen berri hau. Martxoan lehiatuko dira izena ematen dutenak Euskal Herriko herri ezberdinetan, herrialdez herrialde kanporaketak egingo dira gero (iparraldean bat), eta bakoitzetik bat iritsiko da apirilaren 17an Donostian, Korrikaren amaieran egingo den finalera. Bost beraz guztira.

Mailu Arrutik aurreratu du, seguru aski, parte hartuko duela Euskalaketa lehiaketan. •

Riojanos
Afariak, Erretegia, bazkariak, pintxoak, ...
Eta orain Igandeetan ere irekita
Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720
LASARTE-ORIA

MAITE
ESTETIKAKO ARETOA
Foto depilazioa argi pultsatuekin
• Era ezberdinetako depilazioak
• Aurpegiko tratamenduak
• Gorputzeko tratamenduak
• Makillajeak
• Beste hainbat zerbitzu
Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Nicanor Rodriguez Txorroskileroa

“Ia bizitza osoa dihardut zorrozten”

■ Ourense probintziakoa da Lasarte-Orian bizi den zorroztailea ■ Aurten lan egin, erretiroa hartu eta Galiziako baserrira itzuliko da betiko ■ Mutikoa zelarik ikasi zuen ofizioa etxean

Euri denboraleak mendebaldetik, Galizia aldetik, datoz Euskal Herrira, eta denboraleak bezala handik etortzen da Nicanor Rodriguez herriz herri labanak eta guraizeak zorroztera. Duela ia 40 urte etorri zen lehen aldiz eta oraindik ere joan etorrian dabil. Aste batzuetarako etortzen da Lasarte-Oriara, inguruko herrietan lan egiten du eta gero Galiziara itzultzen da emaztea eta sendiarengana. Jubilatzekeo "hilabete batzuk" geratzen zaizkio, eta behin erretiroa hartu eta gero, betiko joango da hango baserrian baratza eta ganadua zaintzera. Ribeiro ardoa ere egiten dute, "etxerako".

Jon ALTUNA

Harakin, arrain saltzaile, tabernari, bizargin, ile moztaille eta etxeokandreak ditu Nicanor Rodriguez txorroskilerok bezero. Ia bizitza osoa eman du horiei laguntzen zorroztaile galiziarrrak. Hastapenetan, egurrezko gurpilak zituen txirindua ezagutu zuen, gero jada Euskal Herrian bizikleta normalarekin ibiltzen zen herriz herri, eta orain motoan dabil inguruko herrietan.

Esaten da zorroztailea pasatu eta biharamunean euria egiten duela. Horrelakorik ez dakigu, ez zigun eta galdetzeko denborarik eman, Etxezarreta harategiko laban eta aiztoak zorrozten aritu zen bost minutuko tartean. Gero etorri zen bidetik joan zen txistua edo txifloa joz, beste bazterren batean beste erreminta batzuek zorroztera.

Bezeroak estimatzen dute bere bisita, zorroztu berri dituen guraize edo labanekin lan egitean alde nabaritzen dute eta.

Hala ere, bera izan daiteke inguru hauetako azken txorroskileroa: Hilabete batzuk barru jubilatzekeotan dela esan zigun Nicanor Rodriguez-ek. Orduan pena hartuko dute bezeroek, segur aski ez du eta beste inork jarraituko lanbidearekin. Berak ez du behintzat Txorroskileroa gazterik ezagutzen.

Zorroztarria motoan jarrita

Mutikoa zela ikasi zuen lanbidea, "etxean" sei-zazpi urte zituela, koxkortu zenean etorri zen Euskal Herrira 28 urterekin eta ia berrogei urte daramatza hemen lanean.

Motorra du bidaide eta lankide. Motoan ibiltzen da inguruko herrietan eta motorrak biratzen ditu labanak zorrozteko erabiltzen dituen hariak.

Moto atzean esmerila jarrita dauka, lehen bizikletan zeukan bezala. Pedalei atzeraka eman eta esmeril harria bueltaka jartzen zuen orduan. Lehen motoa duela 20 urte hartu zuen. Orduan arte bizikletan ibili zen herriz herri.

Donostia, Altza, Tolosa, Hernani, Erreterri, Lasarte-Oria, Andoain, Usurbil, Getaria eta Zarautzera joaten da besteak beste. "Trintxerpera ere bai, galegoengana, galegoen bosgarren herrialdera" esan digu umoretsu.

Krisi garaian

"Alde guztietara joan behar, egoera kaxkarra da eta" esan digu begia harrian jarrita daukan labanarengandik kendu gabe. Nabaritzen omen da krisia.

Zenbat kobratzen duen galdetuta ez du Nicanorrek erantzun nahi: "gauza gutxi, batzuei gehiago eta beste batzuei gutxiago. Gutxi gorabehera bost euro. Edo gutxiago", komentatu digu sekula aberastuko ez denaren aurpegi eta lasaitasunarekin. "Honekin ez gara aberastuko, hori seguruli!" amaitu du. Behintzat bizitzeko adina ateratzen du.

Nicanor ezagutzen dute herritarrek eta batzuek ikusi orduko, itxaroteko esan eta etxera igotzen dira euren laban edo guraizeen bila.

Motoarekin hara eta hona ibiltzea arrisksua ez ote den galdetu diogu. "Moito precaución", arreta handia jarri behar dela dio, eta motoa kontu handiz gidatu: "Txofer on asko dago, baina oso txarrak ere bai".

Gehienak galiziarrek

Galizia da zorroztaile gehien jatorria, baina hainbat urtetan belaunaldi batetik hurrengora pasa den ofizioa azkenetan da. Han ere oso gutxi segitzen dute eta zahartu dira.



Etxezarreta harategiko labanak zorrozten harrapatu genuen Nicanor Rodriguez. Gero etorri zen bidetik joan zen txifloa joz.



Nicanor Rodriguez Lasarte-Orian bizi da, alokairuan, baina bere etxea Galizian dago.

Azaroaren 7an bete zituen 66 urte. Eiradela, Ourenseko Nogueira de Ramuín-go herrixkan sortu zen, eta bertako beste lagun asko bezala, txorroskileroa ari da. Ourense probintziako nekazal herri hauetakoak izan dira txorroskileroa gehienak. Nogueiran bezala, inguruko beste herrietan ere ezagunak dira zorroztaileak, esaterako Castro Caldelas, Esgos, Chandreixa de Queixa, Pereiro de Aguiar, San Xoán de Río edota Xunqueira de Espadanedon.

Herri hauen ezaugarri da denetan daudela hortik zehar dabilzan txorroskilerok. Aldi baterako migratzailak dira, kanpora joaten dira, herriz herri dabilza, baina beti bueltatzen dira etxera. XVIII. mendean ba omen ziren jada txorroskilerok ibiltari galiziarrek. Bere birraitona, aitona eta aitaren lanbidearekin jarraitzen du Nicanorrek.

Galiziarren ezaugarri da migrazioa, hara eta hona joan dira. Bere senitarteko batzuk Ameriketara ibili ziren eta gaztetxoa zelarik, bere aitarekin urte batzuk Kuban eman eta gero, itzuli eta gazte hasi zen Euskal Herrira etortzen. Aita Lisboara joan eta etorri ibiltzen zen oinez. Bera, aldiz, Euskal Herrira etorri da baina aste batzuk hemen pasatzen ditu eta beste batzuek han. Aterkiak ere konpontzen ditu. •

Egunero

Erakusketa

LASARE-ORIAREN XXV. URTEURRENA dela eta "ORIA" izeneko erakusketaren inaugurazioa. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etatik 21:00etara.

Astelehena, 28

Ekitaldia

OHOREZKO ARDOA eskainiko dute Andaluziako eguna ospatzeko Semblante Andaluz Elkarteak, 20:00etan.

Osteguna, 17

Zinea

EXIT THROUGH THE GIFT SHOP filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

GAZTELANIAZ

Osteguna, 31

Zinea

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

GAZTELANIAZ



9 Goya eraman zituen
Pa negre filma ostegunean

Pa negre (Pan negro) filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Katalunian, gerra ondorengo urte gogorretan Andreuk bi hildako topatzen ditu basoan. Agintariek bere aitari bota nahi diote errua, baina Andreuk, aitari laguntzeko, nork hil dituen ikertzen saiatuko da.

OSTEGUNA 3
KULTURETXEAN 21:30EAN
SARRERA, 4,20 EURO

Inauteriak
2011

Larunbata, 5

12:00etan TXUPINAZOA Sagardotegi kalean.
12:30etik 14:30era PINTXO POTE (Jalgi, Dakara, Ilargi, Insausti, Iñaki, Avenida, Buenetxea).
14:30ean BAZKARI HERRIKOIA Sagardotegi kalean.
15:30etik 16:30era EKITALDIA Sagardotegi kalean: Jotak, zezenketa, batukada, malabarak...
16:30ean DESFILE ERRALDOIA Isla plazatik erdigunera.
18:30ean DANTZALDIA Sagardotegi kalean.



Oharrak

Odol ateratzek

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte gaur, otsailaren 28an Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neska eskumuturreko bat, bi zilarrezko pultsera, haur zamarra bat eta larruzko zamarra bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Sorgin Dantza

Ttakin kultur elkarteak 25. urteurreneko Sorgin Dantza saioan parte hartu zutenei jakin arazten die, Udalak ospakizunetan parte hartu dutenei eman dizkien oroigarriak, boligrafoa eta giltzatak, Ttakunen egoitzan, Geltoki kalea 4an, daudela.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia
Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara
Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa
Ostiralero programa!
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Eskutitza
Euskal Herria aldaketa soziala!

Borrokaren bidez lortutako langileon eskubideak sunsitzin ari dira. Kapitalismoaren eraso berria lan eta gizarte eskubideak etengabe murrizten ari da, eta horren ondorioz, biztanle askoren bizi baldintzak kaskartzin ari dira. Krisiaren aitzakiatan, bankaren eta botere finantzieroen eskuetan dagoen Europak agindutakoa betetzen dute estatuek. Hala, lege eta dekretuen inposizioarekin, aberastasunaren banaketa gero eta injustuagoa da. Fiskalitate sistemak pertsonen arteko ezberdintasunak areagotzen ari ditu, gizarte prestazioak murriztu, zerbitzu publikoak ahuldu, eta pentsio nahiz soldaten eros ahalmena gutxitu egiten dute.

Gure herrian hainbat murrizketa gauzatu dira honezkerok: lan erreforma, soldaten eta pentsioen jaitziera orokorrak, gastu publikoa gutxitzea (merkatuen presioa dela eta "sektore publikoaren beharretara" egokitzeko), BEZaren igoera... Baina eraso gehiago prestatzen ari dituzte, prekarietatea legearen babesaz hedatzeko asmoz: pentsioen erreforma, gastu soziala gehiago gutxitzea, sektore publikoan plantilen murrizketa, bankak sortutako zorrak herritarrei ordainaraztea, errepresio juridiko-poliziala indartzea balizko protestak zapaltzeko, e.a.

Orain, krisialdi hau sortu dutenek pentsioen sistema publikoa ere murriztu nahi dute, neurri asko mahai gainean daudelarik: erretiro adina atzeratzea, kotizazio urte gehiago eskatzea pentsioa kobratu ahal izateko, kotizazio urte gehiago kontuan hartzea oinarri erregulatuak finkatzerakoan... neurri hauek guztiak, edozein hartuta ere, pentsioak pertsona gutxiagok kobratzea eta kobratzen duten horiek diru gutxiago jasotzea ekarriko du. Aldi berean, Banka diru publiko mordo ari da jasotzen gobernuen eskutik, ezerekin. Historian zehar esku pribatuera joan den diru publikoaren transferentzia handienaren aurrean aurkitzen gara segur asko, eta orain, berriz ere, pentsioen erreformaren bidez, diru publikoa esku pribatuera pasako da, erreforma honen bidez lortu nahi duten bakarra sistema publikoarekin bukatzea delako.

Sistema pribatizatuz, daukaten espekulatzeko ahalmena handituz. Gainera, ez dute inongo pausurik eman espekulazioarekin amaitzeko eta neurrigabekeriarekin behingoz bukatzeko.

Egoera honen aurrean, HerriaAbian!etik naskatuak gaude hainbeste inposaketaz. Nahikoa da Europa eta Estatu Batuek diseinatzen dituzten murrizketak gobernu espainola eta frantsesa eta beraien ordezkariak autonomikoek guri inposatuz, maniobratzeko aukerarik gabe utziz.

Guzti honengatik zuegan zuzentzen gara, eta pentsioen erreformaren legearekin jendartearen gehiengoak eskatzen duguna kontutan hartzeko daukaguen erantzukizuna betetz.

Euskal jendarteak ezezkoa eman dio erreforma honi, horregatik eskatzen diogu zuen eragileari hau kontutan hartzea eta EZEZKO bozka ematea erreformari Madrilgo parlamentuan, zuen erantzukizuna delako jendartearen gehiengoak nahi duena errepikatzea. Argi izanez abstentzioaren esanahia:

- 1- Gehiengoaren nahiaren aurrean entzungor egin.
- 2- Egoera honen ardura-dunekin bat egitea

Herri hau egunero-egunero aurrera ateratzen dugunok gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea, baita alor sozioekonomikoari dagokionean ere, eduki behar dugula uste dugu, oinarritik eta planetako beste herri batzuekin elkarlanean egungo garapen ereduaren alternatiba eraiki ahal izateko. Beste mundu bat posible delako eta beste Euskal Herria bat beharrezko dugulako.

Herria abian

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).



Ospakizun nagusia igande eguerdiko bazkaria izan zen Semblante Andaluz elkartearen. Goiko mahaian izan ziren alkate eta alkateordea.



Semblante Rocierokoek goizean mezan eta arratsaldean elkartearen kantatu zuten.



Atean, ikurrina eta Andaluziako bandera. Barruan giro bikaina bazkalostearen.

‘Finoa’ Andaluziako Egunean

■ Gaur ospatuko dute andaluziarrek eguna ■ Lasarte-Orian Ohorezko Ardoa emango dute Semblante Andaluz elkartearen

Lasarte-Oriako andaluziarrek, Andaluziako beste guztiek bezala, festa eginduko dute gaur eta ohiturak aldatu gabe, urteroko eguna aurreko urteetan bezala ospatuko dute: Arratsaldeko 20:00etan Semblante Andaluz elkartearen Andaluziako ardo goxoa banatuko dute herriko agintari eta elkartearen biltzen direnen artean. Otsaileko azken egunean ospatzen dute Andaluzian eta Andaluziatik kanpo bizi diren andaluziarrek egun berezia, 1980ko otsailaren 28an autonomia eman zion estatutua onartzeko erreferenduma egin zela gogoratuz.

Andaluziako Eguna gaur ospatzen bada ere, ospakizun larunbatean hasi zituzten

Hijos de Jaen taldearen emandarekin. Barakaldoko Andaluziako Elkartearen abesbatzak ia bi orduko emanaldia eskaini zuten Manuel Lekuona Kultur Etxean. Arratsaldeko 19:30etan hasita Andaluziako folklorearen erakustaldi bikaina osatu zuten Barakaldokoek.

Ospakizuna igandean

Igandean bildu ziren ospakizun gehienak, festa egun handia egin zuten Semblante Andaluz elkartearen: meza, bazkaria eta kontzertua.

Igande eguerdian Rozioko mezan elkartu ziren herriko andaluziarrak. Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan 12:30ean hasi zen mezan

Semblante Rociero koruak abestu zuten. Ondoren bazkaltzera joan ziren Semblante Andaluz elkartera eta bazkalostearen, 18:30 inguruan hasita, elkartearen Semblante Rociero taldeak berriro abestu zuten.

Bazkarian izan ziren Jesus Maria Zaballos alkatea eta Iñaki Mugica alkateordea, herriko andaluziarrek eta Gipuzkoako beste herri batzuetatik etorri zirenekin batera. Guztira 120 lagun inguru elkartzu ziren Semblante Andaluzen eta bazkalostearen giro bikaina egon zen.

Eta gaur amaituko dituzte ospakizunak Semblante Andaluz elkartearen 20:00etan egingo den ekitaldiarekin. •



Hijos de Jaen Barakaldoko taldeak ia bi orduko emanaldia eskaini zuten larunbatean.



Xpresionek Kultur Etxeko kafetegian antolatzen dituen kantaldietan ostiral honetan kasualitate edo ez Oscar Portugues abeslari flamenkoa izan zen.

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak
- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak




Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua	Etxeko txorizoa
Tripakiak- Saltxitxak	Basurde burua
Txistorra	Baserri pateak



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria